

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

345n. zenbakia

2009 urtarrilla



2009 URTE ZORIONTSUA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €


Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao


Comienzo: 6 de octubre

URTE BARRI ZORIONTSUA







 Tra - ka - tañ, tra - ka - tañ, i - ru - e - rre - ge
 Be - len' en jai - o - dan Je - sus Aur - txo - a,



 Tra - ka - tañ tra ka tañ Be - len' e - ra . Mel - txorrek tra ka tañ,
 Tra - ka - tañ tra ka tañ jau - res - tera . Tra - ka tañ tra - ka - tañ.



 zal - di - a bel - tza . Ka x - pa - rrek tra - ka tañ zal - di go - rri .
 Bal - da - zar zarrak zal - di - a tra ka tañ zu - ri - zu - ri .



 za - pa - ta - txu - añ jos - tai - llu po - li - ta ke - mo - te - ra .



OLENTZERO



Antxiña, jentillak gau baten Aralar'en dagoan Ernaga zelaian dantzari ebiltzala, izar berezi bat ikusi ei eben zeruari.

Euren txaboletan jentil zar bat euken, zerua-
ren eta izarren barria ondo ekiana.

Jentil zar ori itsua zan eta bere lagunai esan
eutsen:

Zezer asmetan dot, baiña ezin dot ondo
ikusi. Nire beta zabaldu egistazue eta emon
egidazue makilla bat.

Betazalak zabaldu eutsoezenean, auxe esan
eutsen zarrak bere lagunaz:

Ernaga ernaga daitela, Kixmi jaiio eia ta
gureak egin dau. Jaurti nagizue menditik bera
(Jentillak Kixmi esan eutsoen Kristo'ri).

Jaurti ei eben, ba euren jakintsu zarra, eta
an beko trokan il ei zan gizajoa.

Eta besteak, izar berezi arengandik iges
egin eben, eta Arraz-arri" aundiaren azpira
jausi ei ziran itsumutsuka.

Ez guztiak, orraitíño.

Baten batek iges egin eban eta Aralar'eko
oiudari biurtu zan.

Gau sorgintsuaren antza eukan gau arek.

Sortaldeko iratargiaren adarrak mendi tonto-
rrekin, isla batzak agertu eta ego-aizeak jotzen
zitan.

Eta ara, alako baten, oiuz luze bat illun ixil
aretan.

Eta mendi-tontorreko arri-pikuak jo eta Aralar
mendi-kateko oiartzunak itxartu zituan.

Bereala zama barriak, mendirik mendiluze-
tuten dabe, ego zantzo ezaguna.

Urrango goizean, inguruetako artzain guztiak
Olentzero'ren txa joan ziran eta esan eutsoen:

– Zure deia entzun dogu, Olentzero, eta
emen gagoz guztiok.

Bai, gauza aundi bat esan bear dautzuet.

– Zer da, ba, jauna?

Sarri agertu dautzuedaz gure aurrekoen
misterioak. Ba misterio orrekin kate-begira ager-
tu da orain.

Zein kate-begi?

Ez giñean gu betiko galduta geratuko,
Mekelats'ek ekarri euskun, ondamendiaren
ostean. Barri on bat emon eutsen gure aurre-
tikoai Anboto'ko Mari'k: Gaizkatzaille aundi bat
jaioko jaukala: Kixmi.

Orrelako zerbait entzunda gagoz bai.

Eta izar bat izango zala Kixmi aundi orren
zantzoa. Adar luze ta argi berezidun izar eder
bat. Eta atzo arratsaldean...



Atzo arratsaldean zer?

Ba, atzo arratsaldean ara begira, beti lez, gengozala ara non agertzen dan izar aundi ori.

Eta orain zer?

Ba, galdu dala sorgiñen bizia. Eta Aralar'eko oiulari-biurtu nazela ni, emendik aurrera.

Zen oi u egin bear dozu ba?

Beko ibarretara noa, oraintxe bertan, ango jente guztiai, Kixmi jaio data esatera eta arek atera gaitula gatx guztietatik ira.

– Bakarrik?

Ez! Lau lagun bear dodaz: bideak luzeak, eta lana luzea dira, errezago ibilliko naz arein bizkarraren gaiñean.

– Ez dago txarto esanda!

Eta or dabil, arrezkero, Olentzero ori lau morroskoen lepogaiñean, ibarrik ibar eta etxerik etxe, Jaunaren Barri Ona zabaltzen:

Olentzero joan zaigu
mendiran lanera,
interntzioarekin
ikatz egitera!

A ditu duanean,
Jesus jaio data
lasterka etorri da
parte ematera.



Eta euskaldunok kristiñautu ta gero be, urtero barritzen dau, gabon bezperan, bere ibillaldia.

Etxeko tximiñetik goitik bera jatsi eta bertako subetean dagon gabonzuziko mukur-gaiñean jesarri eta polito-polito aparitan asten dan.

Eta etxekoen zori txarra, apari ondar gozoak eta ugariak izten ez ba'dautsoez!

Igitai zorrotza artu eta zamea ebagiten dautse guztiai!

Urkiola'koa

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeita bost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 e.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

“AGUR!! ETXENAGUSIA TA URIBE´TAR ON-KARMELO”



Beragaz denbora laburrak berba egin da gero eta Martin ta Iñaki´ren bidetik, JAINGOIKO´engan eta Euskerearen maitasunezko zaletasuna azaletik esagutu ondoren (balekite, Euskal-maitasunezko usai ori izatea errudun, Espainola´ren aolku bidez, Aita-Santuak, Bizkaí´ko Gotzain tituludun ez izendatzeko), Iñaki´k eskatuta, Euskerazaleen berotasunezko agurra argitzeko idaz-lan labur onen bitartez arduratu naz. Berak egin eta berarengandik esaten dabezenakaz, al doten gogo guztiagaz egingo dotena.

1.980´an “ZER” aldizkariaren 32´ko zenbakian eta 13n. orrialdian, Olazar eta Uribe´tar Martin´ek, Etxenagusia´tar Karmelo´rengandik esaten ebana:

Nere bizitzan, eneban ezagutu ospe andiko On-Karmelo agurgarria, areik eta Ama-Birjiña Zuria´ren senda-etxean Olazar eta Uribe´tar Martin, bere bizitzako azken egunetan zaintzen egon nintzala, bera gaisotegira etorrita osasunaren azterketa batzuk egin egiotzezan, aurrez-aurre egoan gelatik Martin ikustera iru bider aldatuta, nigaz berba egin arte.

Eneban sekula gogoan izango, alango itxura ederreko gizon bi-aiak, JAINKOA´k deituta, ain denbora gitxiko aldian, bizitz onetik joango jakuzela.

Martin, Irailla´en 20´an, gaueko ordu bata berrogeita-amairu minutu gitxiago ziranean il zan eta on-Karmelo Azaroa´ren 6´an.

Egurrola´tar Iñaki´k esanda, jakin neban, beragaz batera Euskerazaleak Alkartearen batzordekoa be izan zala eta Martin´eri itandu neutsoenean, baietza emon ondoren literaturaren kondaira arloan eta elerti-arloan idazle ona izan zala eta Aita-Santi Onaindia´ren Euskal Literaturazko liburuagaitik itanduta, Karmelo izan zala lenengoz Euskeraz idatzi ebana Literaturazko liburua.

Jakingarriak:

Iurreta´n, 1.932´ko Jorraillaren 24´an jaioa dogu Karmelo.

Ikas-bidea:

Gordexola´n, Artea´n eta Gazteiz´en egin ebezan bere abade ikasketak eta 1.955´ko urtean egin zan abade.

Geroago, Komillas´en, Eleiz-Legediaren ikasketak egin ondoren “baimendun” agiria lortu eban.

1.961´garren urtean sartu zan Gotzain-Etxera lan egiteko eta or jarraitu eban il dan-arte.

BARRI POZGARRIA:

EUSKERAZALEAK taldearen barruan pozgiroa asmatzen da. Gure bazkide ta lankide dogun Etxenagusia´tar Karmelo Gotzaindegiko Ordezkarri nagusia izendatu dauskue, goterkiko abade ta laikoen artean auteskunde egokia izan ondoren.

Zorionak Karmelo´ri eta zorionak EUSKERAZALEAK taldeari.

EUSKERAZALEA:

Lan onetan ez doguz aitatu bere eliz-lan ugariak (abade-gaien etxean, lekaikeen kape-lau, III ordezkartzako arduradun...) eta eleizea ta euskerea alkartzen dituen lanak pizka bat aitatu doguz.

Eta lenengo, Gazteiz'ko abadegai-etxean: Guda ostean izan ziran lenengo ikas-aldietan an egoan Karmelo: Euskera ikasteko baimen barik, jolas-aldietan alkartuta, etxeko zuzendaria "ikus-ez" egingo ebala baiña baimenik ezin emon leikela esanda. Zaletasuna ba-egoan eta ikas-bearra be bai.

IDAZLEA:

Karmelo euskal idazlea dogu elerti-arloan, literatura kondaira-arloan. Bera izan zala uste dot euskeraz agertu zan lenengo literatura-liburua.

Baiña Karmelo'ren lenengo lana, eleiz-lana izan da beti eta ez dau izan asti larregirik idazle-arloan lan egiteko. Eta tamalgarria da, idazle argia, zeatza ta jatorra da-ta.

ITZULTZAILLEA:

Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik, Eleizan lana ugari izan da eleiz-liburuak euskeratzen, eta lan au egiteko talde on bat sortu zan.

Talde orren barruan lan aundia egin dau Karmelo'k, eta ez berak bakarrik, sarritan bezte batzui be, eleiz-liburuak zelan euskeratuta dagozan eta zelan euskeratu bear diran itandu dautse.

IRAKASLEA:

Esan dogun lez, Eleiz-lana ta euskera-lana egokiro alkartuz, Karmelo'k irakasle lez lan aundia egin dau euskerea bera Abadegaien Ikastegian irakasten, eta lan orrek Euskalerrri guztian zelako garrantzia izan dauan ikusteko ez dago billaketa sakonik egin bearrik: Abade egin diran eta azkenera eldu barik urten daben asko ta askok izango dabez gogoan bere irakatsiak eta berak emondako trebetasuna gai oneitan.

IZLARIA:

Karmelo izlari ona da, batez be euskeraz jente-aurrean itz egiten dauanean.



Eta au ez da neure eritxia, beste barik. Mikel Zarate'ri egin jakon omenaldian izan zan batek, auxe esan eustan: Ederto egin dau berba Karmelo'k. Pozik egon naz berari entzuten. Euskera garbia, gozoa, erreza ta ugaria, benetan !

ORAIN ZER ?:


Labur-labur eta zeaztasun larregi barik egingauko lantxu au amaitzeko eta esan bear diran gauza asko esan barik geratu dirala jakiñik, geroari begira, itaun au dator burura: Orain zer egingo dau eta egin bear leuke Karmelo'k ?

Arlo baten beintzat, asitako lanari jarritu: Eleizea euskaldundu, Erria ta Fedea alkar-tu; bide orretan aurrera egokiro egin dagien, Gotzaiñai lagundu; Gotzaindegiaren benetako euskal-arpegia agertu.

Bilbo'ko Eleizeak ba-dauka, zalantza barik, euskal-zaletasuna, baiña argiago ta garbiago agertu bear da, eta ori lortzeko ba-dauka naikoa zeregin bere maillan Karmelo'k.

Eta zerbait zeatzagoa nai ba'dau, Karmelo'k ondo daki Bizkai'ko euskerea zelan dagon eta EUSKERAZALEAK zer eskatzen daben.

OLAZAR'tar MARTIN'ek



Aita Santi´ren Literaturazko liburuetan:

Aita-Santi´ren Literaturazko liburuetara joan da, berak zer esaten dau: “BIBLIOGRAFIA” Ona emem literatura au osotzean esku artean erabili ditugun liburu batzuk.

Eta aipatzen dauazan 29 liburuetatik: 1´go liburuan 31´garren orrialdian. Karmelo Etxenagusia: “Euskal Idazleen Lorategia (Donostia, 1.969)” da.

2´garren liburuan 57´garren orrialdian. K. Etxenagusia´k Aita Prai Bartolome (1.768-1.836) gaitik esaten dauana: “Bizkai´ko euskal idazle zaarren artean, Aita Prai Bartolome garainetakoa dogu; izan be, euskera berezkoa, etorri aundikoa, argia, indartsua, aberatsa darabil beti”. 70´garren orrialdialdian: K. Etxenagusia´ren, Lorategia, 127 orr. Aipatuz, Mogel eta Elegezabal´tar Juan Jose buruz esaten dana. “K. Etxegarai, Azkue, J. Garate, I. Omaetxebarria, L. Billasante, San Martin, K. Etxenagusia ta beste batzuk, ordea, debarrari txaloka dauzkagu. Errikoia da, joskera ona du; baita irudimena ere, Eskolia deritzan liburuaren orrietan bereziki”. Eta 275´garren orrian: K. Etxenagusia´k, Frantzizko Inazio Lardizabal´i (1.806-1.855) buruz emoten dauan

eritzian: “Euskera sakon daki: iztun ederra ta ugaria; bere lanak ondo landuak dira, argiak eta txukunak” esaten dau.

3´garren liburuan: 192´ko orrialdean: K. Etxenagusia´k Urruzuno´ren gaitik bere eritzian esaten dauana: “Izlari ona ez baiña, sermoi-idazle bikaiña ei zan. Idazle lez, lpuin-asmatzaille joria, ugaria: orduko euskal aldizkari-rik geienetan argitaratu zituzan ipuiñok, “Auspoa Liburutegiak” batu ta eskeiñi deuskuz barriro (nn. 5, 47, 51). Erriarentzat egiten eban, eta orregaitik bere euskera ta joskera oso erriko, bizi, argi ta aberatsak dira”. 386´ko orrialdian: Emen K. Etxenagusia´k Menezauñdi´gaitik esaten dauana: “Manezauñdi´ren izkerea, Luzaide´koa izanik, baxe-naparroako euskalkikoa da; beti be oso errikoia, bizi bizia, esaeratan jatorra ta aberatsa. Atsegin aundiz irakurtzen dira aren artikulu polit eta umore onez orniduak”.

4´garren liburuan: 28´garren orri-aldian, Karmelo´k, Eguzkitza ta Meabe´tar Juan Bautista´rengandik, bere eritzi lekuan esaten dau: “Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitza´k: argi, otz, zuzen, kontuz.... Bear bada, astunegitxua egiten jaku, luzarora, bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatikako legeai lotuegi edo dalako” (Euskal Idazleen Lorategia, Donostia, 1.969, 231 orr.). Karmelo´k, 42´garren orrialdian Arriandiaga eta Gorozika´tar Imanol´engaitik esaten dau: “Urrats-zur dabilkugu”. Eta Orixe´ren esan ondoren: “Aranatar sutua dogu A. Arriandiaga” “Maixuaren asmoak aurrera eroanik, euskeraren erreformatzaille guztien buru-edo dogu; gure izkerearen lojikeak lilluratuta, erreforma sakonak egin nai izan zituan euskal gramatika osoan”(Lorategia, 236 orr.).

6´garren liburuan: 169´garren orrialdian, Karmelo´k, Ibinagabeitia ta Idoiaga´tar Sabin Andima´gaitik (1.906-1.967) esaten dauana: “Bizkaitar jakitun onek – jesuitarako ikasketarik geienak egiña zan – euskereari eskeiñi eutsan bere bizi osoa, urteokaz Ameriketako erbeste lantzean. Idaz lanik geienak gipuzkeraz egin ditu, izkera landu, txukun, aberats eta, bear bada, otzegian.... Kritikalari zorrotza (zuzena ta biguna, batera) ta itzultzaille aspertu-eziña.... Zaitegi, “Orixe!, Ametzaga, T. Etxebarria ta beste asko ta asko: gure artetik urruti bizi bear izanarren, ez dabe euskera alde batera itxi; urrutiago ta laztanago... Euron artekoa dogu

gure Andima txalogarria be !” (Lorategia, 282 orr.). Eta abar asko.

“Olazar eta Uribe´tar Martin´ek, Karmelo´gaitik esaten eban: “Euskerazko Eleiz-lan ugari euki ebalako, ez ebalasta larregirik euki idazle-arloan lan egiteko. Eta tamalgaria zala, idazle argia, zeatza ta jatorra zala-ta”.

(Eta Karmelo´ren buruz idazten nagoen lan onen bitartean, Uriarte´tar Ana´k deituta, beste tamalgarrizko albiste (noticia) bat artu dot: 2.008´an Abenduaren 5´ean, arratsaldeko ordu biak dirala “San Sebastian ta Zubillaga´tar Jose Mari “LATXAGA” il jakula). G.B.

“DEIA” Bizkaiko eguneroko aldizkarian irakurrita, beste batzuen artean, beragaitik esaneko lora-eder oneik batu dodaz, adibidez Igone Etxebarriak esaten dauana: “Izkeraz samurra zan, Karmelo, lagunarterako atsegiña eta aurrean daukanari edertasuna ikusten ekiana”. Arejita´tar Adolfo´k: “Bizkaiko euskara jatorra ezagutu nai duenak irakur beza “Euskerea nire bizitzan” liburuaren leen kapitulua”. Unzueta´tar Anjel Mari´k: “Oso maitatua zala, atsegin (afable), lagunarteko (accesible) eta solas-egille edo mintzaile aundia”.

Begoña´n, Karmelo´ren buruz elizkizunak egin ziranean an egonda, nik eneban sekula esango, an esan ziran lez: Karmelo “gizon on-bat, Eleiza´ren maitale” izan zala eta, gaiñera, gazteleraz.

Karmelo´k, Euskal-Erri ta Mundu´ko Erritarrak maitatzen ebazan “JAUNGOIKUA´ren Eleizalez”. Eta gure “Arbasoak bizitz-oneri emon eutsoen adierazpen ederragaz, gure izatasunezko Lege-Zarretan oituratuta daukaguzan munduko Gizartearen Eskubide guztiak”. Or !! eta era orreitan bakarrik zaintzen diralako JAUNGOIKUA´k Gaiezko-Izadi oneri ipini EUTSOZAN LEGEAK.

Gauza orreik ikusita, enintzen egon gogo-onenean eta nire burutik oldozmen asko joan-etortzen zirala, bategaz oartuta geratu nintzan, nire buruari itaun au eginda: “Zergaitik..., sorburuzko ez dan izkuntz-bat, sorburuzko izkuntza daukan erri bateri sartzeko ainbeste alegin egin ?”.

EUSKERA: “Sorburuzko itzetatik asita, bere oguzpeneko (pronunciaciòn articulada) osotasunean daukazan itzak, bizitzak daukan legearen eskaeran, itz-bakotza bere lekuetan ondo gardaiñatu edo egokituz (ajustar) osotuta dago.

Eta gure “NORTASUNEZKO-ERRIGIZARTEAREN IZAERA, BEREN AZTURAZKO IRAKASKINTZAN ONDO-EKANDUTA”.

GAZTELERA: “Erromatar-Menperatzailleak guda-lardarian (imposiciòn) ekarri eben Latiña eta bertokoak mintzatzen ziran Berezko-Euskerearen bitartean sortutako mozkin (producto) edo naastezko izkuntz baragarri bat da”.

JENDEKUNTZAZKO IZKUNTZA: “Bietatik zein da JENDEKUNTZAZKO IZKUNTZA ? (idioma de cultura, o de civilizaciòn ?).

Eta zergaitik ainbeste alegin gure zentzunezko Oituran edo Nortasunean berakada aundi orreik egin dagiguzan..., lokatzazko naaste bitartetik JAUNGOIKUA argitasun geigoagaz ikusten dogulako ?.Gai-Mundu oneitan eta BEREN FISIK-ARAUZKO LEGE oneikaz, eziñezkoa dala erakusten dausku.

Eta ainbeste larderi alboratuta..., Zergaitik ez dabe bezarkatzen: “Giza, Erri eta Mundu onen gizarte guztia etsipen (desesperanza) aundiaz eskatzen dauzan ESKUBIDEAK ?

ZER OSTONDUTEN DABE ASMO ORREIK ? : Elburu onik ez beintzat, eta gure EUSKAL-EKANDUZKO zentzun ederrean atzerakada galanta egitea izango zalako, eutsi bear dautzagu JAUNGOIKUA´ri begira milla urte askoren artean egin dan EUSKAL-EKINTZARI..

ETXENAGUSIA´tar ON-KARMELO´k: Beren askeneko arnasaldian “AURRERA EGITEKO” emon eban aolkuan, berak erria ondo ezagutzen ebalako, ziurtasun andiaz esango neuke: Aolku ori, ERRIA´ri emon eutsoela, iñork baiño obeto jakin ebalako: “EUSKALERRIA, JAUNGOIKOAK BIZITZ ONERI IPINITAKO LEGEAREN LOTSEAN NORTASUNDU EGIN ZALA”.

EUSKALERRIAK, ZOR AUNDIAK DAUKAZ ON-KARMELO´GAZ

“EGUN AUNDIRARTE”



ATUTXA´tar PAUL Zornotzan 2.008´an Abendua´ren 13´an

SENDIA, GAUZA AUNDIA



Afrika'n gizartearen oiñarri da sendia. Onen garrantzia agertzen dausku Kenia'ko alegi onek. Gizakiak edozein gauzari utsa emon leikio, baiña zoritxarrekoa sendibagekoa! Altxorrik aundiena peitzen jako.

Izurriak kalte ikaragarriak egin ebazan lurralde aretan, gizonengan naiz abereengan. Gizon bakar bat geratu zan bizirik eta berau be makala zan. Gizon oneri belauna gasotu jakon eta Jainkoari laguntza eskatu eutson. Narraz ebillen eta bideko lagunai esaten eutsen:

-Jatekoa emoidazue eta min egiten daustan belau au kendu!

Bidelariak jatekoa emonten eutsoen, baiña ez ziran ausartzen belauna kentzen. Gaisoak, geiago ezin jasan—eta, aiztoa artu eta zauritu



eban belauna, baiña arrituta ikusi eban zauritik iru neska polit urten zirala.

Jainkoari eskerrak emon eutsozan bere otoitza entzun ebalako. Errira etorri eta beretzat eta neskentzat txabola bat egiten asi zan. Aundi egin ziranean aita bakarrik itzi ebazan bera eizara joateko.

Aita kanpotik zala artzain batzuk ikusi ebazan iru neskak eta maitemindu egin ziran. Ezkontzeko neskak etxera eroatea nai eben artzaiñak.

Neskak asko maite eben aita eta esan bagerik ez eben joan gura, agur egin artzaiñai eta urrengo egunean barriro etorteko esan eutseen.



Aita etorri zanean, dana azaldu ondoren pozututeko auxe esan eutsoen:

-Gu urrin joan arren, nai dozunean ukusiko gozuz, etxe-ondoan daukazu bidea-ta.

Urrengo egunean aita barriro joan zan aizara, artzain gazteak etorri ziran eta iru neskak dana ondo gertatuta, bazkaria be bai aitarentzat, eurakaz joan ziran.

Guizona ille bitan bizi izan zan bakarrik eta neskak ikusteko gogoia etorri jakon eurak esandako bidetik joanda.

Alabak ikusi ebenean pozik urten bidera eta bazkari on bat gertatu eutsoen. Baiña gizonak pentsau eban. Jaungoikoak gauza asko egin dauz ondo, baiña onena sendia.

OLAZAR'tar Martin'ek

URRUTIZKIÑA (TELEFONOA) BIZKAIA'N



Urrutizkiña asmakizun aundia izan da. Graham Bell eskoziarra izan zan asmatzaillea. 1876n. urtean lortu eban ari baten bidez berbea bialtzea. Illeak egin ebazan aurkikuntza ori obetzen. Gero Tomas Watson'ek lagundu eutson, baiña gelarik gelara entzutea eta txarto entzutea baiño ez eben lortu. Dirua bear zan asmakizuna obetzeko eta aria luzatzeko.

Urte bi geroago egin zan York Barri'n lenengo telefono-ardatza (I.T.T.).

Uririk urira 1891n. urtean ipiñi zan telefona, York Barri'tik Txikago'ra.

España'n 1877n. urtean egin zan lenengo alkar-izketea.

Baiña gatozen gure Bizkai'ra.

Bilbao'n lenengo urrutizkiña Federiko Etxebarria'k euki eban, Barakaldo'n.

1924n. urtean Aldundia zan jabe eta Burtza-etxean ipiñi eban. 4.123 ziran telefonodunak, 98 langilleak. Oragaillu edo manibela bat birabiraka erabilliz egiten zan deia ardatzera eta sarritan luzaro itxaron bear izaten zan. Ori geuk ezagutu dogu. Aspergarria zan.

1923n. urtekoak ziran Bilbao'n lenengoak. Urte beratan zabaldu ziran ariak Balmaseda,

Ondarroa, Lekeitio, Bakio, Truzios, Orozko eta Apata'ra.

1924n. urtean Telefonika'k ituna egin eban laterriagaz.

I.T.T.'ak artu eban Bizkaia, baiña ari gitxi eta naste asko egoan, berez iñora be ezin zeitekean berba egin, eta ardatzak gitxi ziran.

Urte beratan asi ziran ardatz-etxean kendu eta zuzen berba egiten eta 1925n. urtean egin zan Buenos Aires Kaleko telefonika-etxe aundia eta erri askotan ipiñi ziran ardatz-etxeak, baiña beti oralekuari (manibela'ri) eragin eta alkar-izketea eskatuta. Aspergarria zan.

Buenos Aires'ko telefonika egitea gauza gatxa izan zan, azpian urak urten ebalako, baiña 1927n. urterako, 152 egun barru, amaituta egoan.

Zuzen berba egiteko 158 km. odi ipiñi bear izan ziran, 17.748 m. lurpean, 200 km. ari lurpean eta gaiñean 63.000 km.ari.

Oragaillu edo manibela bagerik berba egiteko asiera-eguna 1928n. urteko abenduaren lenengo eguna izan zan.

Gida-liburua edo listiña argitaratu eban Telefonika'k nori deitu eta zenbakia jakiteko. Or amaitu ziran Bilbao'n luzaro itxaron-bearrak, baiña bitartean "operadora" egoan; 60 lan-leku ziran 1.500 pezetako saria bakoitxari ordaintzen jakola.





Bigarrenludigudak atzerakuntza aundia ekarri eban.

1945n. urtean CTN laterriratu egin zan. Orduan Bizkaia'n 12.863 ari egozan eta eskatuta beste 5.237.

1955n. urtean 25.000 telefono egozan Bizkaia'n. ardatz-etxeak

1960n. urtean bete ziran Telefonika'ren 15 urteak. 45.000 ziran telefonodunak eta 1970n. urtera arte asko zabaldu zan arien sarea. Azkenengo urte onetan 197.914 linea egozan.

1970n. urtean ipiñi eban %65, irureun milloi, eta Laterri-arteak %35.840 km.'ko aria da, erdia emendik eta beste erdia London'etik. Ari onetatik 640 dei egin leikez batera.

Asita dago Bideo-telefono serbitzua, berbeagaz batera irudia bialtzeko.

Itxas-ontzietara berba egiteko bideak be artu dira, ardatzak itxas-ertzean dirala (1972 urtean): Matxitxako'n, Punta Galea'n eta Kantabria'ko Paves'en dagoz ardatzak.

Aspaldion, laterri-maillatik atera da telefonika eta gaur Euskaltel dau lankide.

Guztiok dakigu eskuko telefonoa'gaz (mobila-gaz) egin dan aurrerapena.

Bilbao'n eta Areetan zirala.

1956n. urtean 13.000 eskari egozan erantzun bagerik.

Ordaiña: 200 dei egi zeitekezan illean eta ortik gorakoak 0, 25 pezeta dei bakoitxa.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA 2008

1º Saria

Joxe Mari Murua Goñi

2º Saria

Ziortza Arrien Orbe

3º Saria

Asier Legarreta Legarreta

4º Saria

Palmi Merino Portela

5º Saria

Aurora López

Zorionak

EUSKALERRIA`REN EGIA: II ASIERA ETA ERROMATARRAK

EUSKERA:

Gaur badakigu, onartuta dagoalako, Homo-Sapiens`en edo Kromañoi`en gizakiak, len-ereduko Euskerea edo Euskera`ren itz-zarretatik Mundu guztira eta batez-be Europa onetara zabaldu zirala.

Eta nai-ta gaur arte, Mundu`an ta Europa`n batez-be, ele-jakintza`n, asko dakien ele-jakitun aundiak egonda, batek-be ez dauala aipatzen Euskerea`renik ezer, nai euren lan-guztiak, Euskera`ren sorburuko barnera bideratu.

Egoitza`ren (actitud-postura) jarkera (situaci-òn) orreik, oso ezberdiñ gauza-bi gaitik sortzen dira, gaur gagozan menperatzailletasunezko Mundu onetan.

Adibidez: a) “Menperatzaileak, euren sasi-jainkotasunean (azkenekoak, katolikotasunezko Erroma`tar aberri-barri zaleak) Mundu onen erri ta erri-gizarteak beartuta batzangotu gura ebenak, LATIÑA jakintzaren izkuntz bezela gaiñeratuta eta BEREZKO IZKUNTZAK oinperatu edo arbuatuta, izkuntz-basati edo ez-dakien izkuntz bezela, euren sasi-asmakintzak garai-pentzeko”.

Eta b) Erroma`tar katoliko menperatzaile oneik, Nizea`ko Batzar-Nagusi`tik orain 1.683 urte sasi-agintzan garaipendu ziralako, ekanduz edo berezko-oitura onean ibili ziran izkuntzalari-ei egia dana argitzeko, frogapen edo siñispideko eskaeraren eragozpeneko bidetik debekatu egiten eutseelako.

Leenengoai esan: Nai-ta euren sasi-jainkotasunezko indarrarekin garaipenean agertu gura, ez zirala aal edo gai izan, 1.683 urteko denbora guzti onetan, Italian eta erromatarren jaio tokia izanda, bertan daukiezan Euskerazko izen asko eta batez-be “Arno ta Tiber” ibaiaren izenak aldatzeko.

Alde batetik: Ondo baiño obeto etorri jakuna, gauzak, siñispide frogako eskaera orreitan argitzea, jakinduritzaren zeaztasunean betetako lanezko-ardura orreik, BEREZTASUNAREN sabelera bialtzen edo bideratzen gaitualako.




Alderantziz: maltzurkerizko guzur orrein bidez dabizenai, leen: “LATIÑA” desagertu jakie eta “KATOLIKOTASUNAREN ERROMA`tar-KAIZERTZAZKO ALDERDIKERI (nacional-catholicismo)” ori be, bere azken maltzurkerizko guzurak eutsi ezinean dabillelako.

Jakintzaren arloko denbora aiek, erritarren artean mailla txikerrekoak izan ziralako eta jakintza gaiñera euren norkerizko eskuetan egon zalako, iñor ez zan konturatuten. Baiña gaurko denboretan..., zelango zentzunezko arrazoiak daukiez... alango ganorakaz aurrera egiteko ?.

Ez dago beste biderik JAINKOA`ren LEGEA`n izan ezik, bestela musturrak-be or itziko doguz euren aurka. Eta aurrera begira bakerako bidea, gizartearen eskubideak, BEREZKOTASUNAREN-LEGEAN zainduta lortzen dalako.

Bigarrenai: Esan: “Mundu`ko gizarte guztia, BIZITZA`ren LEGE`zko ARDURAN ezartzeko, ez dagoala beste arau-biderik, ZUEK ardura aundiz arremantuta AZTURAZKO (metodo



ERROMATARRAK SORTU ORDUKO, AURREKO LEIÑUEN JAURKINTZAZ-ko ANTOLAMENDUA:

Homo-Sapiens edo Kromañoia`ren izkuntza Euskerea izan bazan-be, euren zabalkuntzazko aztura bidean eta euren artean artu ebezan lur-bitarteak, eziñezkoa biurtu jakien jendekuntz bardin baten azi edo eta izkuntz baten azkartzeko (fortalecer, consolidar). Orregaitik, Afrika, Asia ta Europa guztian eurak asieratik euki eben izkuntz-bakarreko oiñarrietatik ainbeste Euskerazko-itz.



A s i e r a orren jarkera, asko esan gura dau aurre-ra begiratu gura ezker eta edo, goian esan doten-lez, ele-jakintza`ren izkuntzalari edestilariak, iñundik iñora-be ez

dabelako ardura aundiz kontuan euki edo ekan-duzko ardura orreik, menperatzaille-berekoiak ez ebelako gura berezko LEGEA`n ikusi, gaur umeak izango giñan-lez, or gabiltz, ganorabako eztaibadan batak besteari arrazoa eragozpentzen.

Berez, bereztasunaren-izti`ak edo bereztasuneko-lojika`k erakusten dausku, ardurazko lotsa gitxi dala emen agertzen dana.

Dana dala, kontu aundian artu bear dana, erpe batetik zuaitz baten adarkurazko antz-baten zabaldu ba-zirala, berbea

oldozmenaren (pensamiento) adierazpena gaitsetzeko dala edo esabidea dala, zertan gabiltzan ulermentzeko, Homo-Sapiens, Kromañoi edo Leen-Euskaldunak, ainbeste urteko aztura bidetik: "Adimen edo ezagumeneko (facultad de discernir) oiñarri sendo bardiñ-batetik zabaldu zirala, gero oiturazko ekanduaren orekan, gauzak azterbideratzeko.

Europa`ren Mendebal eta Ekialdeko mapa goitik ikusita eta oinkada txiki-bat emonda, Kelti`en mugialdiak eta edo Indo-Europeo`aren bitartekotasunak (influencias) kontuan artu gabe. Ikusten doguna: "Leiñuen azturazko jaurkintza, nai izkuntz batekoak izan, Nortasunezko ardura aundiz bakeak zaintzeko, Euskaldun, Keltiar eta Griego`ak-lez, bakotxa beren ardurazko batzarrekin, alkartasun antzeko baten (anfictionia), lurraldearen auzotasunezko laterritasunean antolatu zirala". Geiago bear eben.....?, galdetu egite eban Latiegi`tar Bixente`k.

Europa`ko Demokrazia`ren antolamenduzko jaurkintz au da, erromatarrak euren menperatzailletasunezko asmoarekin naastekatu edo zirriborrotu egin ebena.

**ATUTXA`tar PAUL
2.008`an EPAILLA`ren 15`ean**

ARRANTZALE-OITURAK



Euskalerria ta itsasoa. Mariñel jator batentzat muga gabekoa izan oi da itsasoa.

Elezarrak dioskunez, itsasoak ekarri ei eban “Euskaldunak” ontzia Adour eraño, Ondikola printzearen agindupean Iguskia ta Ilargia, Himalayako artzai gazte bi ontzi berean ekarriaz.

Adourretik Itxassuraño eldu zan eta bere emaitza Euskalerrian zear edatu ei zan.

Itsasoak, bestalde, munduko alde guztietan ezetuazo eban Euskalerriko izena.

Arrantza izan zan historia-aurreko euskaldunaren jarduera mota bat. Mesolítico garaian (9.000/400 k.a.) arrantzaren bidez abeltzaintza ta nekazaritzaren akatsak arinduten ziran. Apurapurka mendiko gizona itsasoagaz eskuartuten asi zan.

Balea-arrantza erabat onartuta egoan XII gizaldirako. Esate baterako Bermeo, Portugalete ta Lekeitioko Eraikitzeo Agiriak diñoskue

Bizkaiko Jaunak bere esku eukala “arrain-bostekia” (quincioa).

Gizaldietan zear Bale-arrantza izan zan Itxaso-ekintzarik garrantzitsuena. Eta gure kostaldean gitxitu zan araberan Terranoba alde-ra jo eben lenengo ta Groelandiara geroago. Euskaldun arrantzaleengandik ikasi eben “Balén-arrantza” leiakide izango ziran Engladar ta Holadatarrak.

Arrezkeroz gora-berak egon ziran arrantzan, salerosketan, itsas-lapurretan ta gudaketa arlotan.

Erdi aldeko Mendean Itsaszaleen Kofradiak agertu ziran. Izan be santu/santen erlijoso-profesionaltasun giroan sortu ziran alkarte oneik. Adibidez, Bermeon, 1614-11-13 an.

Pio Barojaren esanetan desbardiñak ziran mariñelak, itsaz-gizon, itsaz-zabaleko arrantzale, bale-arrantzale, makallao-arrantzale, ta kostaldeko arrantzaleak.

Araudietan desbardiñetako lez aitatzen dira: mareante, navegante, arrantzale, sardinzale, regatero, maestre, mariñel, morroi, ontzi-mutil izenekoak eta atalayero, campanero, mayordomo, guarda-puerto, señoero, ventador lanbidekoak.

Arrantzale batzuk nekazari beiñekoak genduzan eta alderantzizkoak be bai.

Anastasio Arriendak diñonez “ arriskutan ipiñi bear gure bizitzak bizi al izateko”.

Ba ziran, bai, arriskuak.! Galernak, esaterako. Onetariko bat Bermeon, 1878-jorraillak 20 an.: 14 txalupa desagaertu ta 106 arrantzaleen artetik, 88 ito. Elantxoben:5 txalupa desagertu, ta 35 arrantzale ito.Beste 8 Lekeition.

Bermeon gertatu zan galerna gogorrenetarikoa 1912-8-12 an, eundaka arrantzale desagertuz.

Arrantzaleak ondo asko daki eriotza dala erremediorik ez daukana :Atara egik ardaoa, erroia dan baño baltzagoa eztoz izango-ta”

Oztopo asko izan dauz arantzaleak bizirik irauteko.Adibidez:gudak, lanbide murrizketak, etxe erretzeak, ontzi atzerritarrak portuetan egindako erasoak, guda talde zapaltzaleen gudariak mantentzea, et.a.

Itsasgizonen erroldaren bidez mariñelen lebak konpontzen ziran. 1760 ko erroldan 1.342 onartuak doguz lanbide ezberdiñetarako. Geroago 1822 ko erroldan 2.134 gizonetzko arkitu ziran, euretatik 134, Armadako zeregiñetarako. Udaletxe bakoitzari lebatarako, kupo bat eskatuten jakon.

1.733 urtean, Plentzia ta Lekeitoko Itsas endore-maiordomoari errolda berrizkusi ta gitxitutea exijitu jakon. Urte onetan "lebak" ezin izan ziran iñolaz be osatu, gai ziran geienak Terranoba aldean arrantza lanean ibilli ziralako.

Eun urte geroago ez ziran amaitu arazoak. 1733 gnan arrantzagintzak gorantza jo eban arrain ugaritsuagaitik.

1.592 an. Erregetzak onartu ebazan gipuzkoar arrantzaleen kexuak, izen emotea naitakoa izan bear zala aginduz.

1876-7-21 ko Abolizalearen araberean Itsasorako Matrikulatutako gazteak, Estaduko Itsastaldean serbitzear egozanak, ezingo eben atzerriko uretan ibilli, 2.000 pesetako fiantza aurreratu arte.

Erlijosio tankerako aginduak be emon jakiezan arrantzaleei. Orretiko zerga ordaindu bear eutsoen Mareage eritxon Kofradiari, edo ta euneko bata Bermioko Talaiko Eleizeari ;bai eta Lekeitioko Kofradi-ereikuntza ta Prebosteari be.

Plentziako Kofradiko arrantzaleak gau eta egunez edo jaiez Araudiak ipinitako neurrietan arrantzan egin eikien. Alan be, kexuen indarrez lortu eben sapatu ta jaietan arrantzan al egitea.

Bizkaiko Portuetakoak eskubide apartekoak bereganatu ebezan arrantza arloan ezezik, gañerako eratorriko lenbidetan be. Kalagurriko gotzaiak, 1.819 an agindu zabala eskeñi eutsien Ondarru ta Lekeitikoari, Bisigu ta Lebatz arrantzarako, jagokien Bikarioaren baimenaz, beti be galazoaz gauetako Jituan- erara arrantzan egitea ta sarek sardina ta antxoak arraptea.

Nabarmendu bearra dogu, kostaldeko eusko emakumearen lana, kemen ta jite bereziaz gaztetatik eldu arteño, nasetako sareak konpontzeari ekiten deutsona.

Bermiotarrak bertako emakumeen izaeraz jabe-tzen dira : kementsuak, ausarditsuak, aundinaiak. Inude bikañak, Santurtziarren pareko, "sardina freskue" oiukatutzen ebenen antzekoak.

Gazigintzan gora aldiak ikusi ziran.



Arrantza munduaren zear, edozein lekutan sortzen dira mitoak, elezarrak, siniskeriak... alantxe sasi jainkoetan, sorgiñetan, txerrenetan, animetan, mamuetan, iratxoetan, eta gizaki-aberetan gauzatuz.

Izan be izadi indargure gorde eziñak dira mito orreik, antziña-antziñako gizonaren babeski lege, esaera onen ildotik "IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA".

Eusko Mitoloji aroan gagoz, lamien aurrean, beste lekuetan Jentillak izenagaz ezetuak. Eusko lamia (lamiña, lamiñaku) emakume –ninfa, altura txikiko jeinua dogu, taldetan koba edo mendikostaldetako leizetan bizi dana. Barrualdealdean gorribaltza ta egazti oñadun emakume arruntak lez agertzen dira. Kostaldean, barriz, gorputz-bealdez arrain-isatsadunekoak doguz, norditar erritarren tankerakoak.

Ogoñoako lamiak, Orozko ta Zeanuikoen antzera, bekokian begibakarra eukien eta Ogoñoako koba "Lexa" deritzon bizi ziran. Antziñakoen esanetan inguruen ibiltzen ziranak eraso ta bildurtuten ei ebazan. Persona arruntak, eurengeatik babestuteko Natibitate goizean GABON-ARI edo SORGIN ARIEGAZ egindako alkandor-atorrakaz jazten ei ziran. Goruetan ekitea ei zan lamien zereginetako bat.



Lekeitioko ta Ondarrabiko arrantzaleak bildur ei ziran arrantzako garaian, euren izenak oguztaztea; ez eta deabruarena, arratoi edo katuarena. Izenaren ordez “beste mutilla” (deabrua), “putz egitekoa”(katua), “belarri txikiña” (arratoia), ta “pendulen kontrakoa” (sorgiña) agoan artuz.

Sorgiña, gaubaren nausi da, kaltegarri ta illunpetako adizkide. Abere itxurak artuten dauz sarritan, batez be katuarenak.

Sorgin sasierlijioa, Pirineo aldeko HEDOn, sorgin-azti batek sortu ei eban. Sasi erlijioaren jaiak AKELARREN ospatzen ziran. Terranobako euskal arrantzaleak sorgin-ospeagaz ziran eza-gunak.

Indar kaltegarrientzat sendabide ugariak eukezan arrantzaleak. Ibarregelutarrak San Pedro iruduaren ezpaltxuek eroaten euriezan itxasoraldirako. Lekitiotarrak belar ta lora bedein-



katuak erre ostean, txaluparen iru txokotan ipinten ebezan sorgiñak uxatzeko.

Ekaitz aldietan Lekeitioko umeak maixuegaz batera San Juan Talaiko portu edo ermitan bilduten ziran letaniak abestuz.

Gabonetan egindako ogi zati bat (kurrusko) itsasora jaurtitzen eben bere asarrealdi baretzeko asmotan. Kilin Kalanka be ospatuten zan San Pedroren irudia prozesioan porturaño eroan eta iru bider uretarantz makurtuaz.

Zarren esanetan Eibarko lamiak eta sorgiñak desagertu ei ziran armak(eskopetak) egiten asi az batera.

Arrantzaleen bizitzan urrengo lanbide oneik nabaritutun jakuz: talaierua, mayordomoa, itsasoko alkatea, danbolinterua, neskatillak (deizaleak).

Ba dogu Suzko Zezena, Zezen gorri deritxona, gauzez lur azpitik sua dariola urtetan eban Jeniua, Beigorri edo txaalgorri izenagaz ezetuten dana.

Leidu leiken lez, iñoz Jaungokoak Bermio zigortu eban Burgo mendi gañetik suzko zezen bat bialduz eta San Juan Portalieraño elduaz, sutan ipiñiaz erri guztia.

Garrantzi andiko urtea 1.297 koa. merkatarri ta salerosleak kanporatuten asi ziralako. Orrek Bermeori berakada andie eragin eutson.

Gizaldi erdien 3.000 etxetik 500 ño jatsi ziran, 1.347, 1.360, ta 1.442 urteetako suteen erruaz.

1.547 ko Ordenantzen esanetara, sute gogorrena 1.504 –abenduako 13 an jazo zan, erri osoa suak artu ebalako.



Garrantzizkoa dogu Lekeitioko Kaxarrankaren ospakizuna. Baita erlijioso utsezkoa izan edo ez izategaitik, eleizako arduradunakaz eukitako eztabaidea.

Garrantzizkoa be Estropaden ospakizuna.

“Partillasen” banaketa txalupetxean egiten zan.

Agustín Arrien

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AMAR ERRUAK

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1, 20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²